




# NOR NAISEN BANEKI.

TXOSTEN PEDAGOGIKOA






## **AITZINSOLASA**

Nor naizen baneki... Zuk badakizu? Jakin nahi zenuke? Bada jakin ondoren damutu denik? Angelu guztietatik nahi zenuke zeure burua ikusi, ala behar da angelu itsu bat? Ezagutu daiteke norbere burua isolatuki, norbere ingurunea ezagutu gabe? Nola jakin, zinez, zarena zarela? Gurasoen ispiluan? Seme- alabenean? Aztarnei esker? Nola jakin nor zaren, ingurune aldakor batean etengabe aldatzen dena bazara?

Ez ote da antzerkia barne indusketarako tresnarik onena?



**AURKIBIDEA**

**NOR NAIZEN BANEKI**

**HISTORIATIK**

**KANTUTIK**

**OROITUZ**

**GALDEZKATZEN / GOGOETATZEN**

**TESTU HAUTATUAK**

## MARREZ, TRAZUZ ETA KOLOREZ




Afitxan ikus dezakegun marrazkian, erabat harrituta ageri zaigun pertsona bat ikusi dezakegu. Inguruan, industutako eremu bat, hilotzak, sua eta haizea ageri dira ere. Tartean iskribatutako hitzak topatu ditu.

NOR NAIZEN BANEKI.

Eskuz marraztutako ilustrazio honek, historia liburueta marrazkiak, komik itxurakoak edota erdi aroko grabatuak dakartzkigu gogora. Trazuz osatutako irudia dugu, hondotik ageri diren kolore masek, elkarrekin nahastuz, kromatismo amaigabea sortzen dute; gure herriko historiak bizi izan dituen pasarteetan gisan, askotariko, nahasi eta indefinitu ageriz.

Bilaketa bat da nor garen jakitea, marrez, trazuz eta kolorez osatua. Denak alkartuz, gerturatuko zaigun irudia osatuko dugu, noizbait.

*Oier Zuñiga*





## LAN TALDEA

### **IDAZLEAK\_**

Harkaitz Cano  
Ximun Fuchs

### **ZUZENDARIA\_**

Ximun Fuchs

### **AKTOREAK\_**

Ramon Agirre  
Garoa Bugallo  
Maialen Diaz  
Aline Etxeberri  
Manex Fuchs  
Idoia Tapia  
Oier Zuñiga

### **KOREOGRAFOA, ZUZENDARI LAGUNTZAILEA\_**

Philippe Ducou

### **ARGIZTAPEN DISEINUA\_**

David eta Dani Bernues

### **TEKNIKA\_**

Acrónica

### **SOINU DISEINUA\_**

Philippe Barandiaran

### **MUSIKA\_**

Xabier Erkizia

### **KORU LANAK\_**

Garazi Navas

### **JANTZI DISEINUA\_**

Ikerne Gimenez

### **JANTZIGINTZA\_**

Khum Atelier

### **IRUDIA\_**

Oier Zuñiga

### **ARGAZKIAK\_**

Ainhua Resano

### **BIDEOAK\_**

Eñaut Castagnet

### **EKOIZPENA\_**

Iasone Parada  
Argi Perurena  
Mikel Unamuntzaga

### **BANAKETA\_**


Irantzu Azpeitia

### **MEDIAZIOA\_**

Arantxa Hirigoyen

### **KOMUNIKAZIOA\_**

Dijitalidadea,  
Gotzon Barandiaran



## SINOPSIA

NOR NAIZEN BANEKI antzezlanak antzoki baten indusketa arkeologiko bat kontatzen du. Arkeologoez eta adituek antzokiaren historia sekretua aztertuko dute, geruzaz geruza, erromatarren garaitik gaur egunera arte. Bi mila urtetan metatu diren gudu ezagunak, gai ez hain ezagunak eta trauma lurperatuak argitara emanez, ikuslea Inkisizioaren, Frantziako Iraultzaren, Karlistaden eta 1936ko gerlaren ikuspegietan murgilduko da, familia, jabetza, mugak, herentzia genetikoa eta indarkeria koloniala bezalako gaiak jorratzeko. Baina, ez da lurra bakarrik esploratuko: pertsonaiak ere barne-bilaketa baten xede izanen dira, gauzatu beharreko erabaki garrantzitsuen eta beren kontraesanen artean harrapatuta.

Inor ez da indusketa honetatik sartu bezala aterako: lurpean bezala, norbere baitan bila hasten garenean ere prest egon behar baitugu ezusteko desatseginak topatzeko.

Kantuak paper garrantzitsua beteko du sorkuntza honetan, kantua baita adierazpen tragikoaren mamia bera. Kantuak bizitasuna ematen die pertsonaien emozioei, haien irudikapen naturalistarik inposatu gabe. Baina kantuak istorioan askatasun handiz aurrera egiteko aukera ere ematen digu, pertsonaiak denboran eta espazioan lekualdatuz nahi bezainbat.





# **NOR NAIZEN BANEKI HISTORIATIK**

## EUSKAL HERRIA ERROMATAR GARAIAIN



K.a. 218 -  
K.o. 476

Erromatar garaian Euskal Herria hiru probintzian banatuta egon zen urte gehienetan. Egungo Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiaren parte handiena, Conventus Cluniensis-aren barruan egon ziren eta Pirinioez hegoalderako egungo Nafarroa Conventus Cesaraugustanoan. Bi conventus horiek Tarraconensis probintziaren barruan zeuden. Egungo Ipar Euskal Herria, Akitania probintzian sartu zuten. Hasierako "Akitania" izan zen lurraldea, Garona ibairaino iristen zen gutxi gorabehera, baina Akitania probintzia sortu zenean, Loira ibaian jarri zen muga, eta beraz, etnikoki galiarrak eta akitaniarrak ziren nahastu ziren administratiboki. II. mende amaieratik aurrera, bertako biztanleek hala eskatuta, Akitaniatik berezitu ziren Novempopulanian probintzia sortuz.


Hainbat hiri sortu zituzten erromatarrek, gehienbat aurretik zeuden herrixkak birsortuz, edo herrietako biztanlean toki berri batera lekualdatuz, Pompaelo (Iruñea), Lapurdum (Baiona), Veleia (Iruña-Veleia) eta Oiasso (Irun).

Iturria



AURKIBIDEA





### Hazparneko aldarea

Hazparneko herrian aurkitu zen erromatar garaiko harrizko aldare batetik kontserbatu den zatia da, III. mendearen hondarrekoa. Bertako magistratu batek Erromara egin zuen bidaia euskal akitaniarrek beren lurralde edo probintzia propioa izan zezaten: Novenpopulania. Aldarean, tokiko jainkoa omentzen da horren esker onez.


52 x 39 cm neurtzen duen marmolezko plaka laukizuzen hau 1988an aurkitu zen Getariako (Lapurdi) aztarnategian, hirugarren gazitoki baten zolan. Ziurrenik bi zatitan hautsi zen osorik botatzear. Goiko Inperio garaiko letra larriz idatzitako testu epigrafiko osoa du, eta K.o. I. mendeko lehen erdian datatzen da. Hildako bati eskainitako dedikazio bat da, harriz egindako monumentu baten sarrera-atearen goiko aldean kokatua egon behar zuena. Estela mota hau, soilik inskribatua edo hildakoen irudiz aberatsago apaindua, kanpoaldean jartzen zen,

### Getarian aurkitutako epitafioa



nagusiaren etxearen inguruan. Bere bizi-tza garaian egin zuen Caius Julius Niger-ek, bere buruari, Julia Hilara-ri eta Caius Julius Adiucus-i eskainita. Honek nagusi baten eta hiru esklabo askatuen arteko harremana agerian uzten du.

*Pura lex,  
sed lex*



Inkisizioa estatuaren tresna politiko-poliziala da, Elizari maileguan hartua, eta, Euskal Herri foralean adibidez, erregeak bestela ezingo zituen moduetan Elizaren bidez interbenitzea zilegiztatzen zuen. Bera izan da gizartea kontzientzien barneraino kontrolatzeko eta eskulotzeko estatu modernoaren baliabide efikazena. Espainietan XIX. menderaino jardun da eginkor.

*Joxe Azurmendi, Pentsamenduaren historia Euskal Herrian. Jakin. EHU 2020 - 68 or.*

## SORGIN EHIZA EUSKAL HERRIAN

[www.ikasbil.eus](http://www.ikasbil.eus)

## “Sorgin ehizak Inperioaren nagusitasun geopolitikoa bermatzea zuen oinarri”.

Asisko Urmeneta – <https://halabedi.eus>

## APO BILUZIAK ETA JANTZIAK

Joseba Sarrionandia. Ni ez naiz hemengoa. Pamiela, 1985 (150.or)

## DEBEKATU NAHI

Ekhiñe Eizagirre. Ataramiñe, 2013 (29.or)

## SORGINAK

Toti Martinez de Lezea. Ilustratzailea : J.L. Landa Hernandez. Erein, 2022.

## ERRE ZENITUZTEN

Jon Garmendia  
« Txuria » / Xabi Solano Maiza

*Haize hegoa  
gau epela  
ilargiaren argi  
mutxurdiñak leihoetan  
teilatuan katu bi  
bide ertzean zenbait kanta  
gau erdiz arnoari  
Hargaiñeko sorgin zaharrak  
keiñuka ilargiari.*

*Telesforo Monzon*

Presondegirik ilunenak  
 izan dire hautatuak,  
 Handik lekora gillotinak  
 ditu egotzi buruak,  
 milion inozentenak,  
 konplitu gabe arrola;  
 oraino bortz ehun mila  
 pikatu behar zirela  
 eman ziren ordenak.

*Frantzia'ko Iraultza eta Konbentzioko  
 gerra bertsotan  
 Antonio Zavala, ETOR, 1989*

**Herritarren  
 iraultza ala  
 burgesiarena?**



### FILOSOFOAK ETA INFAMEAK

Landetan, 1794, Joseba Sarrionandia.

### LANDE TARATUAK

Jesus Maite Arrieta, EREIN, 1989.

### ROSE ITURBIDE : LAPURTARREN

### SUFRIMENDU ANONIMOA

Katearen begiak, Inaki Petxarroman,  
 TXALAPARTA, 2003.

### HAUTSI DA KATEA. SARA IZAN ZEN

### LEKUKO

Toti Martinez de Lezea, EREIN, 2004

### LURBINTTOKO OHOINAK

Adur Larrea, ELKAR, 2022

*Bakea laster ein baledi  
 Kanpoan tugun etsaiekin,  
 Barneko etsaien temari  
 Baginekike zer egin.*

*Salvat MUNHO*

*(Aiherra, 1749 – Bardoze, 1821)*






Karlistaldiak edo karlista gerrak —gerra karlista eta karlistada izenez ere ezagunak — Hego Euskal Herrian eta Espainian XIX. mendean gertatutako gerra zibilak izan ziren, eta Euskal Herria izan zuten gune nagusi. Euskal Herrian bi gerra izan ziren, eta hala gorde da bertako herri oroimenean eta historiografian; izan ere, Espainiako


historiografian Bigarren Karlistaldia deitzen denak, ez zuen indarrik izan Euskal Herrian: Katalunia erdigune hartu zuen altxamendu bat izan zen, Matinerren Gerra ere deitua. Karlistaldiak Europako historian errege-nahien arteko azken gerrak izan ziren.

1833 eta 1876 artean karlistek — Karlos infantearen (Karlos V.a nahi zuenaren) eta bere oinordekoen jarraitzaileek — zenbait aldiz matxinatu eta balio tradizionalak (legitimismo eta katolizismoa) aldarrikatu zituzten, “Jainkoa, Aberria eta Erregea” lelopean, hasieran liberalismoren eta, gero, errepublikanismoaren aurka.



Azaleko auzia dinastikoa izan arren, Euskal Herrian errege-nahiaren babesa baino, foruen galeraren gaia izan zen tentsioen iturri nagusia eta, hain zuzen, foruak behin betiko galdu ziren azken karlistaldiaren amaieran, 1876an. Bi karlistaldietan, elkarren kontra borrokatu ziren liberalak, alde batetik, Espainiako monarkiaren tropa erregularrak eta Gipuzkoako Aldundiaren zein Bilboko armada inprobisatua, eta karlistak, bestetik, gehienez mendira jo zuten gazte boluntarioak, bitarteko militar eta finantzariorik gabeak.






### **Txapel gorria**

Zalantzarik ez dagoena da euskaldunen artean zabalkunde nagusia jaso zuen garaia Lehenengo Karlistada ostean izan zena, alegia XIX. mende erditik aurrera. Izan ere, Tomas Zumalakarregik, bere tropak antolatzen hasi zenean,

txapela hautatu zuen buruko erabilgarri eta aproposena zelakoan. Honela armada karlista osoa, soldadu zein ofizial, txapelekin jantzi zuen. Abantaila asko zituen. Lehengaia, artilea, lortzen erraza zen. Ez zuen ura pasatzen uzten

eta barruan metalezko xafla bat ezarriz gero defentsa ona zen, batik bat goitik behera zetozen zaldizkoen sablekada beldurgarrien kontra.

#### **ITURRIA**





Espainiako Gerra Zibilak Euskal Herrian 1936ko uztailetik 1937ko ekainera iraun zuen, estatu kolpea eman zenetik tropa frankistak Bilbora sartu eta mendebaldeko Bizkaiko mugaraino okupatu arte. Espainian gerra amaitu arte (1939ko apirila), Hego Euskal Herria erretagoardian geratu zen, elikagaien eskasia eta errepresio gogor bat pairatuz.

Ipar Euskal Herria errefuxiatuen aterpe bilakatu zen, hasieran eskuindar askoren eta estatu kolpearen jarraitzaileen babesleku; kolpistek herrialdea okupatu ahala, berriz, haien errepresiotik ihesi milaka herritar eta gerlari joan ziren hara ihesi. Agintari frantsesek haietako asko harrera esparru inprobisatuetan bildu zituzten, nahiz eta askok makiarekin bat egiten amaitu zuten, Bigarren Mundu Gerra hastean. 1936ko urrian, Eusko Jaurlaritza eratu zen, eta gero erresistentzia eta espioitza sarea antolatu zuen erbestetik.

Gerra Zibilak Francoren diktadurari eman zion hasiera 40 urtez, Euskal Herriarentzako efektu traumatikoz. 150.000 euskal herritar inguru erbesteratu ziren, Nafarroa Garaian 3.500 pertsona inguru erail zituzten erretagoardian, ugaldu egin ziren garaileekin bat egin ez zuten familien konfiskazioak. Isiltasuna eta umiliazioa nagusitu zen, areago emakumeen kontra. Adierazpide folklorikoak izan ezik, euskara eta euskal kultura debekatu eta jazarri egin ziren.

### ITURRIA

#### GOROZIKA 1937

Joseba Sarrionandia.  
Ataramine 12 (175.or)

#### FRANCOREN BILOBARI GUTUNA

Askoren artean. Ganbila. 2019.

#### ARRASTOAK

Oier Guillan eta Dejabu Panpin  
Laborategia. 2017.





## KOLONIZAZIOA : ZER GERTATU/ GERTATZEN DA EUSKAL HERRIAN ?



1940 - oraina

Kolonizazioa gizaki talde batek lurralde bat populatzea da. Prozesu horren helburua izaten da baliabide berri eta ugariagoak eskuratzea, taldea zabaltzea/edo beste populazio edo herri bat mendean hartzea. (...) Lurralde bat kolonizatzen duena kolonizatzailea da; eta kolonizazioaz lurraldean bizi direnak, kolonoak.

Historian, bertakoak mendean hartuz beste lurralde edo herrialdeetara zabaltzea bultzatzen duen ideologia politikoari kolonialismo deritzo. Kolonialismoak egindako lurralde zabalkuntzak eta herrien mendekotasunak inperialismo izeneko egoera sortzen du.

### ITURRIA

« *Euskal Herriak konkista militar bortitzak ukan ditu mendeetan zehar eta konkista horien ondotik heldu dira kolonizazioak. 1200. urtean Euskal Herriko mendebaldea, 1512an Euskal Herriko ekialdearen zati handi bat eta gaurko Nafarroa garaia, 1620an Nafarroako erresumak kontrolatzen zuen lurraldea Frantziako erresumak hartu zion. Zer pasatu da geroztik Euskal Herrian ? Presentzia militarra eta administratiboa etengabea izan da. Milaka pertsona hil dituzte hainbat garaitan : Frantziar Iraultzan, Karlistadetan, Gerla zibilan... eta milaka herritar deserriratu ziren. »*

*Eneko Bidegain*



AURKIBIDEA

### ETABAR

Pantxix Bidart. IEHko HITZA. 25/06/27

### IDEOLOGIA BAKAR BATEZ

### PENTSATUA DA MUNDUA

Mireille Fanon. BERRIA.  
17/05/17

### OLIBONDOA

Mahmud Darwish. 1982.  
Euskaratzailea : Koldo Izagirre.

### -4-

Koldo Izagirre. Autopsiarako frogak.  
SUSA Saiakera.

### BIZKARSORO

Josu Martinez. 2023

*“Bizkarsoro herri euskalduna  
da, jendearen joan-etorririk eta  
populazioaren nahaste handirik apenas  
bizitu duena iraganean. Lehen Mundu  
Gerran frantsesen bandoan borrokatu  
beharko du lehenik, eta nazien inbasioa  
jasan gero. Finean, identitateari eta  
hizkuntzari uko egitera behartuta  
ikusiko du bere burua. Programaturik  
dago bere heriotza, arriskuan dago, eta  
ondo pentsaturik egingo zaio eraso,  
baina pronostiko guztien kontrara, eutsi  
egingo dio. Eta hiltzekotan ere, badaki,  
autopsiarako frogak utzita hilko dela.”*

Gorka Peñagarikano Goikoetxea  
(ARGIA)

**NOR NAIZEN BANEKI  
KANTUTIK**



## **HERRI BATEN HISTORIA BERE KANTAGINTZAREN BITARTEZ EZAGUTU DAITEKE**

BEHIN IRABAZI GENUEN

«Gogoeta dezagun, bada, zelan kantatu dioten gure idazle eta musikariek Euskal Herriari. Hasteko, argigarria litekeen oharra: sortzaileak ez du historialariaren zein kazetariaren araurik, ez du artxibategiko dokumenturik behar, lekukoen testigantzak lagungarri zaizkio, ez derrigorrezko. Gertakari batek sentiarazten edo pentsarazten diona nahikoa du sormenerako. Ez du ezer frogatu beharrik.

Askatasun horretatik sortu ditugu gure herriaren historia ulertzeko ezin baliagarriagoak diren kantuak. »

*HITZEN AHAIREA – Gotzon Barandiaran  
(SUSA 2018)*



1. **Orreaga.** Xabier Iratzeder / Benito Lertxundi
2. **Amayur gaztelu baltza.** Lauaxeta / Antton Valverde, Imanol, Hibaï Rekondo, Petti
3. **Matalaz.** Jean Louis Davant / Benito Lertxundi
4. **Karlistaren panparroikeria.** Serafin Barajo / Joseba Tapia
5. **Azpeitiko neskatzak.** Joseba Tapia
6. **Muñagorriren bertsoak.** Muñagorri / Benito Lertxundi
7. **Solferinoko itsua.** Elizanburu / Tapia eta Leturia / Enara taldea
8. **Azken agurraren negarra.** Gorka Knörr
9. **Mendigoxaliarena.** Lauaxeta / Antton Valverde / Eñaut Elorrieta (Ehungarrenean hamaika)
10. **Ekaitza.** Jose Maria Lopetegi, 1936-XII / Joseba Tapia
11. **Itziarren semea.** Telesforo Monzon / Pantxoa eta Peio
12. **Txikia.** Telesforo Monzon 1973-1975/ Pantxoa eta Peio
13. **Gure lekukotasuna.** Daniel Landart / Errobi



## SEASKA KANTA

Amaren bularra  
haurraren janari  
haurraren negarra  
beti hunkigarri,  
baratz hunen erdian  
goseak nago ni  
zure bular laztanen  
antsiz ta egarriz.  
Zure bular pollitak  
zerrien jostailu  
edertasunak kontuz  
gorderik behar du,  
zaude ixilik haurra  
ez egin negarrik  
munduak ez du eta  
malkoen beharrik.

Haunditzen zeranean  
ikusiko duzu  
isilik egoteak  
zenbat balio dun,  
jarrai zure bidetik  
hobe da horrela  
gauza denen gainetik  
haizea bezala.

*Xabier Lete*

## AGUR EUSKAL HERRIARI

Gazte gaztetandikan  
herritik kanpora,  
estranjeria aldean  
pasa det denbora. (Bis)  
Herrialde guztietan  
toki onak badira,  
baina bihotzak dio:  
"Zoaz Euskal Herrira".

Joxe Mari Iparragirre Balerdi

## IKUSKIZUNEAN ENTZUTEN DIREN ZENBAIT KANTU

### NESKATOA HAUR BEHARRETAN

Amodioak gaitu huntarat ekarri,  
zer gertatua zautan erranen dut sarri:  
barnean senditzen dut, hau zaut lotsagarri!  
Sobera fidaturik izar faltsuari,  
jarri behar naiz orai denen irringarri!  
Jarri behar naiz orai denen irringarri!

*Xalbador / Jojo eta Ramuntxo*

### HALA ERE

Nabil, eta nabilelako nago hain neke  
ikusirikan denok hain urrun  
gauzak hain ilun, begiak hain lauso  
eskuak hain zikin  
nabil eta nabilelako nago hain zikin.  
Hala ere, gelditu egingo naiz  
hala ere hau nire lurra da  
hemen dago nire etxe bakarra(x3),  
hala ere, ez dut besterik  
hala ere, ez dut hobeagorik  
hala ere nora joan gintezke?  
Nora joan gintezke?  
Nora joan gintezke?

Lurdes Iriondo

### SAGAR XIMELA

Egizu lo nik emangoizut  
sagar ximel-ximela  
amona bezain ximela eta  
bera bezain goxua

Herrikoia

**NOR NAIZEN BANEKI  
OROITUZ:**

**Ikertu**

**Kontserbatu**

**Babestu**

**Azaldu**





***“Nahi nuke inork noizbait nire hezurak hartzen balitu, pentsatzea: “Joe, kabroi hau, kabroi hau zoriontsua izan zen, bistan da. Hara: irribarrez hil zen!”***

***(Jokin – 32. gertaldia)***

Zure zaborra ikusi eta nor zaren esango dizut. Antropologoez, iraganeko gizarte bati buruz gehiago jakin nahi dutenean, gizarte horrek utzitako arrastoak aztertzen dituzte. Zer iritzi izango dute gutaz, XXI. mendeko aztarnak ikertuko dituztenean? Litekeena da zarrastelkeriaren gizartea ginela ondorioztatzea, natur-baliabideak baliatzen jakin ez zuen gizartea alegia, baita etorkizunean ingurumenari kalte egingo zietela jakin arren, materiale arriskutsuak zaborretara bota zituzten pertsonen eta enprezen osaturiko gizartea ginela ere. Zenbait adituk dio: « beste hainbat kulturak piramideak eta artelanak utzi zizkigutela; guk ordea, zaborra utziko diegu etorkizuneko belaunaldiei ».

## SUSTATU

## **OROIMENA**

Egia, justizia eta erreparazioa. Nazio Batuen doktrinaren oinarria da Giza Eskubideen urraketari dagokionez. Aranzadin, azken hamarkadetan, egiaren arloan lan egin dugu, indarkeriazko testuinguruetan desagertutako pertsonen aztarnak baliatuz.



## MATTIN AIESTARAN

«Burdin Aroko herrixka baskoien  
gainbehera erakusten digu Irulegik. »

## ESKUA

Brontzezko esku bat, 2.100 urteko  
antzinatasuna duena, Irulegiko baskoi  
herrixkako aztarnategian berreskuratua :

## IRULEGI ESKUA DOKUMENTALA

### IRULEGIKO ESKU

### BULEGO



SHΔMHE . M  
s o r i o n e k u . {n}

ME<XEJΔΔΔE  
te n e k e b e e k i r a t e r e[n]

HTMXM . ESEDAΔM  
o T i r t a n . e s e a k a r i

EΔΔΔM .  
e r a u k o n .

**NOR NAIZEN BANEKI  
GALDEZKATZEN  
GOGOETATZEN**

*“Nor naiçen banequi, graçia nuque achequi.  
Ilargiac soilic daqui naiçela Equi.”*

« *Behin irakurri nuen zoriontsu izateko  
bi gauza bakarrik behar direla. Bata,  
norberak norberaz uste haundia  
edukitzea ; bestea, ez aintzakotzat  
hartzea besteek gutaz duten iritzia.  
Niri, lehenago, bi baldintza horiek bete  
egiten nituela iruditzen zitzaidan. Baina  
ez da egia, ez ditut betetzen. Batez ere  
bigarrena. »*

*Bernardo Atxaga. Obabakoak. Erein.  
1988. (62.or)*

## SORIONEKU GU

### **Uste duzu nor zaren bazeneki zoriontsuagoa zinatekeela ?**

Ez izen ez abizen, ez aditz ez atzizki. Hitz bat, hitz gozo bat. Ez harrian ez armarrarian ez hilerrian. Guztion ezpainekoa, guztiok elkarri esatekoa. Sorioneku gu, zu etxe honetan sarturik: jendetasuna. Sorioneku zu, euskaldunok maiteko zaitugu: elkartasuna. Fraidearen lumak «Izioki dugu» eta «Guek ajutu ez dugu» idatzi baino mila urte lehenago zeunden Irulegin, Nafarroan, artisauak teknika puntillistaz eginiko tatuaia brontzezko eskuan: identitatea.

Sorioneku.

Hizkuntza eta hitza ez dira ber gauza. Hegemoniak ez du hitzaren kalitatea bermatzen. Irratiak bertsolariak kantariak entzunez, antzerkiak ikusiz, poemak ipuinak nobelak kronikak komikiak saiakerak irakurriz, euskaraz egun dasta nezakeen hitza nekez dut aurkitzen inguratzen gaituzten hizkuntza nagusien hizkerek hemen ekoizten dituzten produktuetan. Euskal hitza komunitate baten historia transmititzen saiatzen da era kritiko, artistiko eta eraikitzailean, hizkuntzaren jabe den gobernuaren hizkeraren gainetik, inorenganako loturarik gabe eta mundura zabalik, zentzu bat emanaz galegoa izateari, flandriarra izateari, cymrrutarra izateari, kataluniarra izateari, okzitaniarra izateari, britainiarra izateari, korsikarra izateari, gaeltachtarra izateari...

Sorioneku.

Koldo Izagirre . 2023ko martxoaren 4a

## ARTIKULU OSOA





### **ZORIONA**

Julio Soto. BERRIA. 15/06/03

### **ZORIONTSU**

Maider Eizmendi. GARA. 21/07/13

### **ZORIONA**

Baionak ez daki. Bea Salaberri. SUSA. 2015

### **ZORIONAREN ALDEAN**

Zoriona izpi bat marraztea da  
gauaren ekialdean.

Besteen minen asaldura  
triparen erdialdean,  
altxatzeko indar bihurtzea da  
zoriona, esklaboen artaldean,  
erantzun baten mentura  
gizaldiaren galdean,  
zoriontsu izatea da,  
ura borbor sukaldean  
eta guda gogor kalean,  
aztalak erretzen diren  
kresal aurreko salbean,  
zer da erosotasuna  
zorionaren aldean ?

*Maddi Sarasua Laskarai.  
Biharraren hegietan MAIATZ  
(105.or) –*



## Zerk egiten nau naizen hau?

*« Urteak eman ditut nire buru zein gorputzaren kontra borrokan. Nahikoa ez nintzelakoan, gehiegi izatearen beldur. Beti besteen iritziaren menpe. Batzuentzat euskaldunegia; besteentzat, ordea, kultura espainolaren jarraitzaile sutsua. Zaharra jadanik gauza batzuk ulertzeko; gazteegia iritzia plazaratzeko. Itsusiegia soineko motzak janzteko; politegia makillatzeko. Motzegia interesgarri bihurtzeko; azkarregia jatorra izateko. Nortasuna besteen begiradaren bitartez definitu nuen. Ingurukoen nahiz ezezagunen begietan nintzena zen nintzen oro. Nire identitatea bermatzeko besteen baieztapena behar nuen. Ispilu aurrean jarri eta ez nuen islatzen zuena ezagutzen. Ez nintzen ni. »*

Marina Landa Gonzalez

### ARTIKULU OSOA

#### NI NAIZ NAIZENA

ARESTI

#### NI, NAIZENA NAIZ

DELIRIUM TREMENS

#### NAHI DUDANA IZANGO NAIZ

DUPLA

#### BERTSOA

Maialen Lujanbio

(2017/11/01 Irun Txapelketa)



**NOR NAIZEN BANEKI  
TESTU HAUTATUAK**

### 3. GAUR EGUN

ALAIN

*Badakin aktore ofizioa greziarrek asmatu zutela, ala?  
(intentzioz) HEMEN topatuko dun ZER KONTA.*

JUNE

*Heteropatriarkatue erromatarren ondarie dela, adibidez?*

ALAIN

*Beno... Zubiak ere egin zitiztenan.*

JUNE

*Eskuzabalak zielako edo kolonizaziño tresna moduen?*

### 5. GAUR EGUN

JUNE

*Erromatarrek gu baino hobeto jango ebien...*

ALAIN

*Gustu kontuak. Dakidanez, garum-a, arrain-hesteeekin  
egindako ore bat...*

JUNE

*Buaj...*

TXASKI

*Bueno, bueno... Nola dakizue hori?*

ALAIN

*Hildakoen liseriketak aztertuz.*

JUNE

*Ze nazka!*

ALAIN

*Ez beti... Behin lurringile batekin lan egin ninan, baita  
enologo batekin ere.*

TXASKI

*Garaiko ardoak dastatzeko?*

ALAIN

*Usainak denboraren makina dira, ez dago ezerekin  
konparatzerik.*

## 10. GAUR EGUN

**Junek bideo bat grabatzen du.**

*JUNE*

*Urriak 10. Illuminatis, egi barik, ezin geure burue eraiki. Ixen  
zielako gara: bagire, bagera, bagare, bagara...*

## 11. INKISIZIOA

*KARDINALA*

*Zure emaztea gustura dago hemen?*

*MARCO*

*Ohituko da...*

*KARDINALA*

*Ez dadila sobera ohitu. Hemen Andraizeak burua nahasten  
die emakumeei. Hortaz, sorginkeria kasuez salatutako  
biztanleak elkarrizketatu behar ditugu. Luze jo lezake.  
Hemengo lurak kutsatuak dira, Marco. Ez da erraza izanen.*

## 13. INKISIZIOA

**Marco eta Laguntzaile Bat datoz Sorgina/Emagina  
atxilotzera. Eskuak lotzen dizkiote. Marcok paper bat  
irakurtzen du.**

*MARCO*

*Jaunaren 1612ko azaroaren 2an, Erregereneta Elizaren  
izenean, "sorgina" deitzen dioten emakumea hartu dugu  
preso, idolatria eta fedearen aurkako ekintzen susmagarri.*

**Sorgina oihuka.**

*SORGINA*

*Nahi duan bezala! Ez duk lehen aldia!  
Ohitua nauk, apo zekena! Lotsak jango al hau, ezdeusa!*

*"Arre, arre mandako  
bihar Tolosarako  
Handik zer ekarriko?  
Tortura ta garreko.  
Eta haiek zeinendako?  
Gure «Marco» polittarendako!"*



## 18. GAUR EGUN

AINHOA

*Zer da hau! Hezurtegi bat? Hilerri bat?*

ALAIN

*Ez dakit...*

JOKIN

*Hau sarraskia...*

JUNE

*Genozidixo bat...*

ALAIN

*Genozidioa... Lasaituko gara doi bat, hitz handien dantzan  
hasi gabe?*

JUNE

*Zer da hau genozidixo bat ezpada?*

JOKIN

*Erailketa masibo bat seguru... Zenbat dira hemen? Ehun bai  
gutxienez...*

AINHOA

*Gerla-krimena izan daiteke, edo gizateriaren kontrakoa...*

TXASKI

*Ez al dira gauza bera?*

AINHOA

*Ez arras. Gerla krimena gerla- arauen kontrako krimena da.*

JUNE

*Ta gizaterixen aurkakue ta genozidioxue ez?*

JOKIN

*Erlijio kontua dun, June: katolikoek taldea hobesten  
diten; protestanteek, norbanakoa. Ñabardura.*

## 26. GAUR EGUN

**June Erika psikiatraren kontsultan. Junek ezin emozioari eutsi. Erikak mokanesa luzatzen dio.**

ERIKA

*Irudi bat erabiltzen dut askotan: puzzlearen pieza baten bila etorri zara.*

*Zuretzat garrantzitsua da puzzlea osatzeko, baina nik ez dakit zein den, eta seguruenik ez dut sekula jakingo.*

JUNE

*Puzzlea... UAU!*

ERIKA

*Nik puzzlea egiten baino ezin dizut erakutsi: gero zuk osatu beharko duzu. Gauzak isilduz ezin dugu geure burua osotasun batean eraiki, ulertzen? Memoria ez bada transmititzen, etenaldi bat gertatzen bada, izozten gara sekretuaren sarean.*

JUNE

*Asko laguntzeoztezu hor. Benetan, uau.*

*Sekretuaren sarean izoztu. Jode. Kriston patetikue.*

ERIKA

*Gurasoen ametsak jasotzen ditugula, hori... hori mundu guztiak daki. Baina traumak ere bai. Eta isiltasunak transmisioa areagotzen du. Traumak isiltasunen barruan ezkutatzen dira. (pausa) Isiltasuna da traumak garraiatzeko modurik onena.*

## 28. GAUR EGUN

TXASKI

*Anestesia gustatzen zain?*

AINHOA

*Hagina kendu behar badidate bakarrik. Ez nekian musikaria hintzenik!*

TXASKI

*Izandakoa.*

AINHOA

*Nola hori?*

TXASKI

*Nazkagarria dun nola manipulatzan den musika orain.*

AINHOA

*Ez al huen erraten musika dantza eta igurtzia dela?*

*Ainhoak Txaskiri sorbaldan hatza paratzen dio, samur, kuttuntasunez.*

TXASKI

*Touché. Hitzek ezin dutenean, musika mintza bedi... Baina merke saldu ditzen batzuk, oso merke.*

*(...)*

TXASKI

*Ez zakinat. Kontzentrazio esparruetan ez zitenan musika oinazea baretzeko erabili.*

*Txaskik isiltzeko keinu bat egiten dio Ainhoari.*

TXASKI

*Belarriak ez din betazalik. Itxi begiak.*

*Entzun hau. Idi-gurdi baten hotsa dun...*

*Entzun haren marrua... Gurdia mintzo dun. Hots hau ez dun bost mila urtetan aldatu.*

*Arkeologia hutsa.*

## **31. GERRA NAPOLEONIKOAK**

**Ingelesekin dator Julius, soldadu gazte bilakaturik.**

**Bi preso dakartzate: txanoa daramanez bata, ez dakigu nor den; emazte bat da bigarrena (Sorgina).**

SORGINA

*Hi ez haiz ingelesa, Julius. Zer egiten duk haiekin? Hire herriko jendea lokaztu eta gutxietsi? Lotsatu arren, gure odola daukak: ez haiz hemengoak baino hobea.*

JULIUS

*Aske naun, ez naun hi bezala kobazuloko kumea.*

SORGINA

*LEIZEA BAINO LEKU ILUNAGO BATETIK HATOR HI...*

## 32. GAUR EGUN

ALAIN

*Nire familia oso aspergarria izan da beti.*

TXASKI

*Familia zoriontsu guztiak dira berdinak.*

ALAIN

*Nork esan zuen hori?*

TXASKI

TOLSTOI. GERRA ETA BAKEA.

JOKIN

*Arkeologo batek ikus lezake hori? Norbait zoriontsu izan zela?*

JUNE

*Zeri deitzen jiotzak hik zorixona, Jokin?*

JOKIN

*Ui. Ez dut uste horretan ados jarriko garenik.*

TXASKI

*Aukeran, nahiago poza.*

JUNE

*Eta maittasun zorue? Ezaittue iñoz maittasun zoro batek zorixona hatzamar puntegaz ikutzeko zorixen ipini?*

AINHOA

*Berdin zoriona hori da: gertatzeko zorian den zerbait.*

ALAIN

*Adiskidetasuna ere ez da gaizki, ez?*

*Epelagoa, baina bizigarria.*

JUNE

*Baina ze diñozue? Maittasune eta zorixona ezin die epelak ixen!*

**Arte  
Dra  
ma**  
arte  
eszenikoen  
plataforma

**AXUT!**

  
**aranzadi**  
zientzia elkartea